

2017

HARROBIA BHIP-REN BARNE ANTOLAMENDUA ETA JARDUERA- ARAUTEGIA

EUSKARA AHOAN ETA MUNDURA EROAN



Onartua: 2017ko urriak.

Aurkibidea

1. KAPITULUA	XEDAPEN OROKORRAK.....	2
1. atala	HARROBIA BHIPren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak.....	2
2. KAPITULUA	AGINTE ORGANOAk.....	4
2. atala	Asanblada Orokorra.....	4
3. atala	Artezkaritza Kontseilua.....	7
4. atala	Zuzendari-Gerentea.....	11
3. KAPITULUA	PARTAI DETZA ORGANOAk.....	14
1. atala	Eskola Kontseilua.....	14
2. atala	Elkarbizitza lantaldea.....	17
3. atala	IRAKASLEEN KLAUSTROA.....	19
4. KAPITULUA	KOORDINAZIO DIDAKTIKORAKO ORGANOAk	21
1. atala	Zuzendaritza taldea	21
2. atala	Tutoreen lantaldea	21
3. atala	Lanbide Arloko Ekipoa (LAE).....	22
4. atala	Gurasoen Batzarra.....	22
5. KAPITULUA	PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK	24
1. atala	Aginte organoak	24
2. atala	Partaidetza-organok	25
3. atala	Koordinazio didaktikorako organoak.....	26
6. KAPITULUA	.BIZIKIDETZARAKO ARAUAK.....	27
1. atala	I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK.....	27
2. atala	IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA	28
3. atala	BETE BEHARRAK BETETZEKO BERMEAK	31
7. KAPITULUA	EBALUAZIOA	33
1. atala	Errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboa	33

1. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. atala HARROBIA BHIPren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1. artikulua: HARROBIA BHIPren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1. HARROBIA BHI itunpeko ikastetxea da. Bertan, honako hauek ematen dira: Kirol Ekintzen Sustapena, Marketina eta Publizitatea, 3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarreragileak Goi mailako Heziketa Zikloak eta Mikroinformatika Sistemak eta Sareak Erdi Mailako Heziketa Zikloa eta Lanbide Prestakuntzako. Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago.
2. HARROBIA BHIk ezaugarri hauek ditu: plurala da, eleanitza da, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du; halaber, elkarlana eta elkarbizitza suspertzen ditu..
3. HARROBIA BHIk bere egin ditu Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko 1/2013ko Legeko 4.1. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe horretako aginte-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.
4. HARROBIA BHIk, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

2. artikulua: Aginte-organoak

Harrobia BHIPko aginte-organoak dira:

- a) Asanblada Orokorra.
- b) Artezkaritza Kontseilua.
- c) Zuzendaritza.

3. artikulua: Partaidetza organoak

Harrobia BHIPren partaidetza organoak izango dira:

- a) Eskola Kontseilua
- b) Elkarbizitza Lantaldea
- c) Klaustroa
- d) Guraso bilera

4. artikulua: Koordinazio didaktikorako organoak

Koordinazio didaktikoa honako organo hauen bitartez egikarrituko da:

- a) Zuzendaritza taldea

- b) Tutoreen lantaldea
- c) Lanbide Arloko Ekipoa

5. artikulua: Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak

1. Ikastetxeko aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez zainduko dute ikastetxeko jarduerak HARROBIA BHIPren Hezkuntza Planean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoez, halaber, indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.
2. Horrez gain, aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.
3. Mintzagai ditugun organoez, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

2. KAPITULUA AGINTE ORGANOAK

2. atala Asanblada Orokorra

6. artikulua: Deskribapena

Asanblada Nagusia bazkideen bilkura da, eta berorien eskumenekoak diren gaietaz buruz eztabaidatu eta erabakiak hartzeko eraberrituta dago.

Nahitaezkoa izango da Asanblada Nagusiaren adostasuna indarreko legeak aurreikusten dituen gaietan, bai eta ondorengoetan ere:

7. artikulua: Eskumenak

Artezkari-tza Kontseiluko kideen izendapena berrestean.

Estatutu Sozialak aldatzean.

Administratzaile eta likidatzaileak bozketa sekretuz izendatu eta kargutik kentzea onestean, eta beroien arduraren jarduna epaitzean.

HARROBIA BHIPren fusioa, zatitzea, eraldatzea eta desegitea onestean.

Estatutu hauen arabera Bigarren Mailako Kooperatibaren egitura ekonomikoa, antolakuntzazkoa edo funtzionala nabarmen murriztu, zabaldu edo aldatu behar denean; esaterako:

- Bigarren Mailako Kooperatiba irakaskuntzako sare publikoan sartzea.
- Bigarren Mailako Kooperatibaren aktiboen erdia baino gehiago besterentzea.
- Xede soziala aldatzea, baldin eta horrek Bigarren Mailako Kooperatiba sortu zuteneko helburuak ez-errespetatzera eramaten badu.
- Eta indarrean dagoen legearen arabera halakotzat har daitezkeen beste edozein erabaki.

Jarduera nagusia duen zentroren bat edo zati handi bat ixtean, edo lekualdatzean.

Barne Erregimenerako Araudia onetsi edo aldatzean.

Borondatezko eta nahitaezko emariak, sarrera kuotak edo aldizkakoak ezartzean.

HARROBIA BHIPren politika orokorra eta estrategiak aztertu eta onestean; era berean, berregituraketa eta birmoldaketa, kudeaketa soziala, urteko ospakizunak antolatu eta soberakinak banatu edo galerak egoztean, kasua bada.

Kooperatiba-bazkideek Estatutuen eta Barne Erregimenerako Araudiaren arabera dituzten betekizunak onestea; gainera, Estatutu hauetan jasotako konpromiso arau-emaileak betetzen direla ere zainduko dute, besteak beste.

Gainera, Asanblada Nagusiak egitaritu egin beharko ditu kooperatiba-bazkideek ekitaldian emandako, eta legeak adierazitako, eskumenak, I. atalean adierazita datorren bezala.

Artezkari-tza Kontseiluak kooperatiba-bazkideak onartzen dituen bere oniritzia emango du Asanblada Nagusiak; eta bazkideren bat Asanblada Nagusiaren berrespenez kaleratua izan bazen, onesteko garaian ere Asanblada Nagusiaren onespena beharko du.

8. artikulua: Deitzailea

Asanblada Orokorra, Ohikoa nahiz Ezohikoa, Artezkaritza Kontseiluak deituko du, bere ekimenez edo bazkide kopuru jakin batek eskatuta. Legezko xedapenen arabera, sozietate botoen %20 ordezkatzan duten bazkide kopurua beharko da asanbladarako deia egiteko.

9. artikulua: Maiztasuna

Ohiko Asanblada Orokorrerako deia urtean behin egingo da, ekitaldi soziala itxi eta hurrengo sei hilabeteen barruan; xedea eta betekizunak legezko xedapenetan datoz jasota.

10. artikulua: Iragarpena

Asanblada Orokorrerako deia egoitza sozialean jendaurreratutako iragarki bitartez egingo da, eta, kasua bada, beste lantokietan eta kooperatiba-bazkideen egoitza sozialean ere bai.

11. artikulua: Aparteko deialdia

Aurreko azpiataletan xedatutakoa gorabehera, bilkura baliozkoa izango da eta ez dago deitu beharrik baldin-eta HARROBIA BHIPko bazkide guztiak presente edo ordezkatuta badaude eta aho batez Asanblada egitea eta eguneko Aztergaiei ekitea erabakitzen badute.

12. artikulua: Lekua

Asanblada Orokorra HARROBIA BHIPko egoitza soziala duen herrian edo aurreko Asanbladak erabakitako edozein herritan egingo da.

13. artikulua: Adostasuna

Ohiko edo Ezohiko Asanbladak akordioak har ditzan beharrezkoa izango da, gutxienez botoen erdia gehi bat bertan edo ordezkatuta egotea, lehenengo deialdian. Bigarren deialdian, nahikoa izango da botoen %10 bertan edo ordezkatuta egotea.

14. artikulua: Dinamizazioa

Asanblada Nagusiaren buru Artezkaritza Kontseiluaren presidentea izango da, eta idazkari lanak Artezkaritza Kontseiluko idazkariak egingo ditu. Hau falta bada, lana Asanbladak horretarako izendatutakoak beteko du.

15. artikulua: Partaideak

Asanbladan, bazkideekin batera, hitza bai, baina botorik gabe, honako hauek parte hartu ahal izango dute:

- Asanbladan parte hartzeko eskubidea duten aholkulariak, hitza badute, baina botorik ez.
- Bigarren Mailako Kooperatibako zuzendari-gerenteak.
- Artezkaritza Kontseiluak gonbidatutako edonork, edo bozketa sekretuan Asanblada Nagusiak, beren beregi, onartutako edonork.

16. artikulua: Osaketa

Asanblada Nagusia honako hauek osatuko dute:

- Kooperatiba-bazkide batean, 50 bazkideko ordezkari 1, betiere, 100 baino gutxiago izango direlarik kooperatiba-bazkide ordezkariak, eta bakoitzeko bazkide kopuruari proportzionala, gutxienez 3 ordezkari eta gehienez 17 kooperatiba-bazkide bakoitzeko.

Ordezkarri hauek kooperatiba-bazkideetako Artezkari-tza Kontseiluek aukeratuko dituzte.

Bazkide langileen botoak, betiere, denak batuta, bazkideen boto guztien %20 baino gutxiago izango dira.

Bazkide laguntzaileek, bazkide bakoitzak eta Bigarren Mailako Kooperatibak akordioz erabakitako ordezkari-tzaren arabera, bazkideen botoen %9 arte.

Pertsona juridiko ez kooperatiba-bazkideek, bazkide bakoitzak eta Bigarren Mailako Kooperatibak akordioz erabakitako ordezkari-tzaren arabera, bazkideen botoen %20 arte.

17. artikulua: Boto eskubidea

Boto eskubidea banatzerakoan, ordezkari bakoitzak kontatutako boto guztietatik bat izango du. Ordezkarri bakoitzak gehienez bi ordezkari-tza bete ahal izango ditu, bereaz gain.

18. artikulua: Bazkide-langileak

Bazkide langileen eta bazkide laguntzaileen boto eskubidea, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da.

19. artikulua: Erabakiak hartzea

Asanblada Nagusiaren akordioak aurkeztutako eta ordezkari-tzako baliozko boto gehienekin hartuko dira, baldin eta indarrean dagoen legediak edo Estatutu hauek gehiengo indartua eskatzen ez badute.

Aurkeztutako edo ordezkari-tzako baliozko botoen bi herenen gehiengo indartua beharko da elkarte deuseztatzeko erabaki esplizitu edo inplizituak, kooperatiba ekintza uztea ekarriko lukeen edozein erabaki eta Estatutu Sozialen artikulua hau kentzeko edo aldatzeko erabakiak.

3. atala **Artezkari-tza Kontseilua**

20. artikulua: Deskribapena

Artezkari-tza Kontseilua da HARROBIA BHIPren ordezkari-tza, gobernu eta kudeaketa organoa, eta honetarako ahalmen guztiak ditu, baldin eta legeak edo Estatutu hauek beste gizarte organo batzuei ematen ez badizkie ahalmenak.

Artezkari-tza Kontseiluari esleitutako ordezkapena bere presidenteak beteko du, baldin eta Kontseiluak besterik erabakitzen ez badu.

Artezkari-tza Kontseiluak, dagokion konpetentzia esparruan, hartzen dituen erabakiak nahitaez bete beharko dituzte HARROBIA BHIPko, zein bazkide kooperatibetako bai pertsonak, bai organoek. Presidenteari dagokio bilera zuzentzea eta legezko eta Estatutuetako arauak betetzeaz arduratzea.

21. artikulua: Eskumenak

Artezkari-tza Kontseiluak bere eginkizunak betetzeko behar dituen eskumenak izango ditu.

HARROBIA BHIPko organoa denez, Artezkari-tza Kontseiluari dagozkio ondorengo eskumen zehatzak:

- Bazkide-tza-kooperatibaren baja eta onspena onartzea, eta beste bazkideen onspena eta kargu uztea erabakitzea, Estatutu Sozialetan aurreikusitakoaren arabera.
- Edozein ekintza eta kontratutan HARROBIA BHIPren ordezkari izatea ardura osoz.
- Zuzendari-gerentea izendatzea, baita kargua uztaraztea ere, eta haren eskumen, betekizun eta atribuzioak finkatzea.
- Kooperatibaren hezkuntza politika eta filosofia burutzea, hedatzea eta sustatzea kontrolatu eta bultzatzea.
- Enpresaren garapena eta urterako HARROBIA BHIPk aurreikusitako helburuak betetzen direla kontrolatu eta bultzatzea, eta Zuzendari-gerentearen kudeaketa.
- HARROBIA BHIPren giza baliabide, inbertsio, finantza, teknologia eta marketing politika orokorren ezarpenaren kontrola egin, onartu eta bultzatzea.
- Erakunde, enpresa, hezkuntza eta merkataritzarako estrategiak onartzea, bai eta hauen ezarpena eta emaitzak kontrolatzea ere, eta Asanblada Nagusira eramatea onartuak izan daitezzen.
- HARROBIA BHIPren plan estrategikoa nola burutzen den kontrolatu, onartu eta aztertzea.
- Zuzendari-gerenteak proposatutako egitasmo berriak onartu eta aztertzea, baita ekintza berriak hasteko edo sustatzeko planak ere.
- Kooperatiba-bazkideen martxa aztertu, merkatu alorrerako aurreikusitako helburuei dagokienez eta hartu beharreko neurri eta ekintzak onartu, Zuzendari-gerentearen proposamenen ildotik.
- Arlo konkretuetarako pertsona jakin batzuei ahalmena eman.
- Teknikoen baldintza ekonomikoak hitzartu.
- Asanblada Nagusiarik HARROBIA BHIPren Barne Erregimenerako Araudia eta honen aldaketak proposatzea, bai eta Estatutuen eta araudiaren aginduak zuzen ezartzeko beharrezko arauak ere.
- Xede soziala lortzeko komenigarriak edo beharrezkoak diren kontratuak burutzea eta ekintzak egitea. Ez dira alde batera utziko ondasun higiezinak erostea edo besterentzea,

eskubide errealak eratzea, baita hipotekena eta errendamendu eskubide berezia ere. Gainera, HARROBIA BHIPri Estatutu hauek baimentzen dioten eragiketa eta negozio guztiak erabakitzea.

- Kooperatibari komeni zaizkion kreditu, mailegu edo garantia eragiketak erabakitzea.
- Abalak ematea, baita zuzenbidean onetsitako balio edo zor publikoa, tituluak gordetzea, izenpetzea, erostea eta saltzea ere.
- Eskuragarri dauden fondoak nola inbertituko den zehaztea; baita Kooperatibaren sustapenerakoak, Heziketakoak eta erreserbakoak ere. Asanblada Nagusiaren akordioak errespetatuz, aurrekontuak egitea, gastuak baimentzea eta HARROBIA BHIPren ahaldu eta ordezkariak izendatzea. Hauei, kasu bakoitzean komenigarri irizitako eskumenak emango zaizkie.
- Asanblada Nagusiari enpresa-kudeaketaren memoria argigarria, balantzeak eta kontuak aurkeztea urtero. Bita soberakinen banaketa edo galeren egozteak.
- Ohiko eta ezohiko Asanblada Nagusietarako deialdia egin, eta erabakiak burutzea.
- HARROBIA BHIPri dagozkion eskumen edo eskubideak erabiltzeko komenigarria dena erabakitzea, honako hauen aurrean: Epaitegi eta Auzitegi ohiko eta bereziak, bulegoak, agintariak, Estatuko korporazio edo erakundeak, Lurralde Administrazio Autonomikoak, Probintzialak edo Udal Administrazioak. Errekurtso bereziei edo ohikoei dagokienez, ordezkariak eta defentsarako beharrezkoak diren ordezkari, prokuradore edo abokatuak izendatzea dagozkien eskumenak emanez baita adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio errekurtsu edo edozein motatako egintzetarako ere. Eta prozeduraren edozein egoeratan, honen etenaldia eta beste edozer, baita zabaltasun osoz haustea eta aitortza posizioak irenstea ere.
- Fondoak eta ondasun sozialak eskura izatea, eskatzea, jasotzea eta kobratzea. Gainera, bankuko kontu korrontek sortzea eskudirutan, kredituan edo baloreetan. Baita edozein entitaterekin edozein banku eragiketa egitea ere.
- HARROBIA BHIPk, bere eskumenen barruan, eman diezaiokeen beste edozein, baita Estatutu hauetan bereziki esleitutakoak ere.
- Hemen jasotako Artezkaritza Kontseiluaren eskuduntzak adierazteko besterik ez dira, eta ez ditu bere eskumenak mugatzen HARROBIA BHIPko beste organo batzuei legez erreserbatutako kompetentzia ez bada.

22. artikulua: Berezko eskumenak

Artezkaritza Kontseiluaren beraren erabakia beharko da- eta ez da onartuko eskuordetze edo ahalduzkerik- ondorengo gaietan erabakiak hartzeko:

- Zuzendari-gerentea izendatzea eta kargua uztaraztea. Artezkaritza Kontseiluak norabait eskuordetu edo ahalduzkerik badu edozein eskumen erabiltzeko hau izendatzea edo kargua uztaraztea, eta honen lanak zuzenean gainbegiratzea dagokio.
- Ohiko eta ezohiko Asanblada Nagusietarako deialdiak egitea, eta eguneko gai-zerrenda onartzea.
- Bazkideen onspena eta baja.
- Zigortzeko eskumena erabiltzea.
- HARROBIA BHIPekin lankidetzak harreman baliotsu eta iraunkorra izan duten beste erakunde batzuekiko harremanak ezartzea edo uztea, kooperatiba izan edo ez.

- Asanblada Nagusiari ekitaldiko urteko kontuak onesteko, eta eskura dauden soberakinen banaketa edo -hala balitz- galeren egozteko proposamena egitea.
 - Asanblada Nagusiari bere konpetentzia esparruan edozein akordio mota hartzeko proposamena, eta hauek burutzeko erantzukizuna hartzea.
 - Estatutuen interpretazioari buruz sor daitekeen edozein zalantza argitzea.
- Legeak, Estatutuek edo Asanblada Nagusiak, euren eskumenen barruan, eman diezaiokeen beste edozein.

23. artikulua: Osaketa

Artezkaritza Kontseiluaren osaketa ordezkaritza eta gaitasun profesionalaren arabera izango da eta 8 kide titularrek osatuko dute. Hauetatik hiruk presidente, presidenteorde eta idazkari postuak beteko dituzte. Lau urterako aukeratuko dira.

Gainera HARROBIA BHIPko zuzendari-gerentea bileretara joango da, hitza izango du baina ez botoa.

24. artikulua: Hautatzeko modua

Artezkaritza Kontseiluko kideak, ordezkoak eta titularrak, honela aukeratuko dira:

Kooperatiba-bazkideetako Artezkaritza Kontseiluek euren bazkideen artean lau partaide titular izendatuko dituzte. Kooperatiba-bazkide bakoitzari gordeko zaizkion kontseilari kopurua Asanblada Nagusian duen ordezkari kopuruaren proportzionala izango da, gutxienez 1 eta gehienez 3.

Bigarren mailako kooperatibako bazkide langileek bi partaide titular izendatuko ditu euren mailako bazkideen artean, baldin eta hauek guztiek irakasleek eta beste langileek urtean guztira egindako lan orduen %60 egiten badute; eta urteko/ordu portzentaia hori lortzen ez duten bitartean, gutxienez ordezkari titular bat izendatu ahal izango dute, kolektibo horrek aurreikusitako portzentaia hori lortu arte.

Bigarren mailako pertsona juridiko ez kooperatiba-bazkideek Artezkaritza Kontseiluko partaide titular bat izendatuko dituzte, euren mailako bazkideen artean.

Bigarren mailako bazkide laguntzaileek Artezkaritza Kontseiluko partaide titular bat izendatuko dituzte, euren mailako bazkideen artean.

Hala ere, Artezkaritza Kontseiluan bazkide langilerik ez balego, ez dagoelako edo daudenak ez badute irakasleek eta beste langileek urtean guztira egindako lan orduen %60 gutxienez egiten, aldatu egingo dira gutxienez eta gehieneko hauek, harik eta portzentaia hori lortu arte, ondorengo b) azpiatalean adieraziko den moduan. Aldaketa honen arabera, bazkide langileei gordetako postuak kooperatiba-bazkideen artean banatuko dira, eta hauek izango dituzte aldi baterako, kolektibo horrek bazkide langile titular izendatzeko aldi baterako egoera horren kaltetan gabe, aurreko b) azpiatalean aurreikusten den moduan.

25. artikulua: Partaideak aldatzea

Artezkaritza Kontseilua bi urtero aldatuko da partzialki. Lehenengoak lau kontseilariri eragingo die (bazkide-kooperatibetako 2 kontseilariri; bazkide-pertsona juridiko ez kooperatibetako kontseilari 1; eta bazkide langileen kontseilari 1), eta bigarren zikloak gainerako lauei (bazkide-kooperatibetako 2

kontseilariri; bazkide langileen kontseilari 1 eta bazkide laguntzaileen kontseilari 1), eta hala beti. Behin baino gehiagotan hautatuak izan daitezke.

Behin euren aginte epea amaituta, kontseilariak euren karguetan jarraituko dute, harik eta Asanblada Nagusiko partaide hautatu berriek kargua onartu arte.

Kontseilari titularrak berritzearekin batera ekingo zaio kontseilari ordezkarien berritzeari.

26. artikulua: Uko Egitea

Artezkaritza Kontseiluak onartuko du kontseilariak karguari uko egitea arrazoiak emanez, nahiz eta eguneko zerrendan ez egon, baldin eta ez badute Asanblada Nagusiaren aurrean egiten.

Uko egite horien ondorioz Kontseiluan jardunean geratzen direnak berau osatzeko beste izango ez balira, Asanblada Nagusirako deialdia egingo litzateke postu horiek betetzeko ondorengo hamabost egunetan; kargua utzitako kontseilariak lanean jarraitu beharko dute Asanblada Nagusia elkartu arte.

27. artikulua: Deialdia

Artezkaritza Kontseiluaren bileretarako deialdia Presidenteak egingo du, idatziz eta gutxienez 7 egun lehenago, edo, presazkoa bada egun bat lehenago.

28. artikulua: Gutxieneko partaidetza

Artezkaritza Kontseiluaren osaketa balizkoa izango da, bera osatzen dutenen erdiak bilerara joaten direnean. Bertaratzea pertsonala izango da, ezin da ordezkatu inor.

Erabakiak bertaratutako kontseilarien gehiengo erlatiboz hartuko dira, legeak aurreikusitako egoeretan salbu. Kontseilari bakoitzak boto bat izango du. Presidentearen botoak erabakiko du berdinketa dagoenean.

4. atala Zuzendari-Gerentea.

29. artikulua: Deskribapena

Zuzendari-gerenteak, Artezkaritza Kontseiluak esku emanda, bigarren mailako HARROBIA BHIPen exekutibo goren da.

Kudeaketa autonomia goren izango du, eta kooperatiba-bazkideentzat haren erabakiak betearazleak izango dira bigarren mailako kooperatibak emandako eskumenen arabera erabakiekin.

HARROBIA BHIPk izendatu edo kargua uztaaraziko dio zuzendari-gerenteari, alde aurretik HARROBIA BHIPko Zuzendaritza Kontseiluari kontsultatuta.

30. artikulua: Eskumenak

Artezkaritza Kontseiluak ondorengorako ahaldunduko du zuzendari-gerentea:

- Hirugarrengoen aurrean HARROBIA BHIPren izenean aritzeko gaitasuna egiaztatzeko, HARROBIA BHIPk ahaldundute orokor bat emango dio, eta eskumenak botere-idazkian emango dizkio.
- Honen osagai, zuzendari-gerentea barnean aritzeko eman nahi zaizkion eskumenak legezko egiteko, Artezkaritza Kontseiluak Estatutuek ematen dizkioten eskumenak gutxienez jasoko dituen ahaldundute zehatz bat emango dio.
- Zuzendari-gerenteak aipatutako ahaldunduzetan emandako eskumenak izango ditu, eta hauen artean, gutxienez ondorengoak:
 - o HARROBIA BHIPren martxa eta funtzionamendua gainbegiratu, eta antolaketa zuzendu.
 - o HARROBIA BHIPren antolamendua eta egitura landu eta proposatu onartua izan dadin. Behin konpetentzia duten organoek onartuta, hura ezartzeko eta martxan jartzeko beharrezkoa dena erabaki, eta antolamendu egitura zuzendu autonomia osoz.
 - o Artezkaritza-Gerentearen zuzeneko menpeko diren HARROBIA BHIPko zuzendarien izendatzea eta kargua uztaaraztea proposatzea Artezkaritza Kontseiluari., baita helburu soziala betetzeko beharrezko diren beste agintari guztiak izendatzea ere.
 - o Bitarteko agintarien kokapena, eskumen esparrua, betebeharrak eta eskuduntzak proposatzea Artezkaritza Kontseiluari.
 - o Soldatapeko langileak kontratatzea, eta dagozkien kontratuak sinatzea.
 - o Artezkaritza Kontseiluak eskatutakoa, edo erregelamenduek edo Estatutuek agindutakoa zuzen betetzeko beharrezko diren lan, funtzionamendu eta antolaketa arauak garatzea. Baita Artezkaritza Kontseiluari araudi edo akordioak proposatzea ere, garrantziagatik berak erabaki beharrekoak direnean.
 - o HARROBIA BHIPren politika eta hezkuntza politika eta filosofia definitzeko eta, ondoren, onartzeko ekintzak diseinatzea. Baita haiek burutu, hedatu eta sustatzeko.
 - o HARROBIA BHIPren estrategiak adierazi instituzio, enpresa eta hezkuntza arloan. Baita haren Merkatu, Inbertsio eta Giza Baliabideen politika orokorra ere.
 - o HARROBIA BHIPren urteko Kudeaketa Plana eta Plan Estrategikoa proposatzea eta egitea. Baita hura burutzeko ekintzak garatzea ere.

- Kooperatiba-bazkide guztien Plan Estrategikoak derrigorrez eta onartu aurrez ezagutzea.
- Ekintza berriak aztertu eta ekiteko proposamenak egitea, hauen aztertze lan eta bideragarritasun planak. Baita HARROBIA BHIPn egin beharreko fusio, zatiketa, berregituratze eta birmoldaketak ere. Arlo honetan hartutako erabakiak burutzeko beharrezko ekintzak ere bai.
- HARROBIA BHIPri edo beste kooperatiba-bazkideei kostuak txikitzen lagunduko dien ekintzak negoziatu, biratu eta kudeatzea.
- Artezkaritza Kontseiluari kooperatiba-bazkideen parte hartzea proposatzea, hartutako erabakiak edo arau konpromisoak beteko ez balira, edo ezarritako estrategia edo kudeaketa helburuak lortuko ez balira.
- Lehen aipatutako ez-lortze edo ez- betetzeek sortutako arazoak konpontzeko ekintzak proposatu, negoziatu, kudeatu eta burutzea, Artezkaritza Kontseiluari igorri onartzeko.
- Dauden desberdintasunak eta hauen ondorioz sortutako arazoak gainditzeko konponbideak proposatzea eta kudeatzea, bai kooperatiba-bazkide mailan edo Bigarren Mailako Kooperatiba mailan, bazkide guztien eta bakoitzaren garapen egokia aurkitzen.
- Asanblada Nagusiaren eta Artezkaritza Kontseiluren ildoari jarraitzeko arauak burutzeko eta garatzeko beharrezko den beste edozein.

31. artikulua: Erabakiak egikaritzea

Zuzendari-gerenteak bere kompetentzia esparruan erabakitakoa derrigorrez bata beharko da.

Zuzendari-gerenteak Zuzendaritza Kontseilu bat sortu ahaliko du aholkularitza organo bezala. Zuzendari-gerentea izango du buru, eta berak izendatuko ditu partaideak, hauen artean gutxienez kooperatiba-bazkideen zuzendariak edo hauek izendatutakoak egongo dira.

32. artikulua: Eskumen gehigarriak

Estatutuetan aipaturiko betekinunez gain, Zuzendariari dagokio:

- Ikastetxearen ordezkari itzea, ikastetxean hezkuntza Administrazioa ordezkatzeko, eta Administrazio horri hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.
- Ikastetxearen jardura guztiak zuzentzea eta koordinatzea, irakasleen klaustroari eta ordezkari-organorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe.
- Zuzendaritza pedagogikoa gauzatzea, hezkuntza-berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.
- Legeen eta indarrean dauden gainerako xedapenen betetzea bermatzea.
- Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea.
- Ikastetxeko elkarbitza hobetzea, gatazka konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean dagoen araudia beteta, gai honetan ordezkari-organorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe. Horretarako, ikastetxeetan gatazka konpontzeko prozedurak bizkortzea sustatuko da.
- Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana sendotzeko, familiekin, erakundeekin eta organismoekin lankidetzak bultzatzea, eta eskola-giroa sustatzea, ikasleek jakintzetan eta

balioetan prestakuntza integrala jasotzeko eta ikasketa-ohiturak sustatzeko lagungarri izan daitezkeen jardun guztiak garatze aldera.

- Ikastetxearen barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.
- Ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenaren eta irakasleen klaustroaren egintza akademikoetarako eta bilkuretarako deialdia egitea, egintza-bilkura horiek zuzentzea eta aipatutako erakundeek beren eskumenen eremuan hartutako erabakiak betearaztea eta betetzen diren zaintzea.
- Obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioak egitea, gastuak baimentzea ikastetxearen urteko kudeaketa-programarekin bat etorriz, ordainketak agintzea eta ikastetxearen ziurtagiriei eta dokumentuei oniritzia ematea, hori guztia araudi bidez ezarritakoari jarraiki.
- Hezkuntza gaietan eskumena duen sailari ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideen izendapena eta kargu-uztea proposatzea, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenari jakinarazi ondoren.
- Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak esleitzen dizkion guztiak, beste arau batzuk esleitzen dizkionak eta ikastetxearen antolaketa eta jardunbiderako erregelamenduak ezartzen dizkionak”

3. KAPITULUA PARTAIDETZA ORGANOAK

1. atala Eskola Kontseilua

33. artikulua: Deskribapena

1. Ordezkaritza Organo Gorenaren (Eskola Kontseilua, alegia) bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, zentroaren titularrak, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalek HARROBIA BHiren kudeaketan parte har dezakete.
2. Badira HARROBIA BHIPren jardunean parte hartuko duten beste organo espezifiko batzuk. Gurasoen batzarrak eta ikasleen parte hartze-organoeak mintzagai dugun ikastetxearen kudeaketan parte hartuko dute. Partaidetza hori Guraso-bilera eta Elkarbitzita lantaldearen bitartez egingo da, hurrenez hurren.
3. HARROBIA BHIP ikastetxeko ikasle-elkartearen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkie elkarte hori haien jarduera gauzatu dezan. Horrez gain, elkarteak ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.
4. HARROBIA BHiko Ordezkaritza Organo Gorenaren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiek hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan. Organo horrek Eskola Kontseilua izena hartuko du.

34. artikulua: Eskola Kontseiluaren eskumenak.

HARROBIA BHiko Eskola Kontseiluak honako eskumen hauek izango ditu.:

- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, antolakuntza- eta jarduera-araudia eta kudeaketa-proiektua onartzea, bete daitezen begiratzea eta ebaluazioa egitea.
- Ikastetxearen urteko plana onartzea.
- Prestakuntza-jardueren eta ekintza osagarrikoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa bere gain hartuz.
- Ikastetxearen urteko txostena onartzea.
- Ikasleen onarpena erabakitzea, indarrean dagoen araubidean agindutakoari bete-betean lotuz.
- Ikastetxeetan bizikidetzaren arloko neurri zuzentzaileak ezagutzea eta berrikustea, ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzten arauekin bat etorritik.
- Beste ikastetxe batzuekin lankidetzaren harremanak izatea kultura eta hezkuntzazko helburuez.
- Eskolako instalazio eta tresneriaren aldaberrikuntza sustatzea, bai eta haien iraupena zaintzea ere.
- Ikastetxearen jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta irakaskuntza alderdietan.
- Horretaz gain, organoko kide -kopuru osoa eta kideen banaketa ezarriko du. Zehaztuko ditu, halaber, organoaren bilkura-sistema eta beronen iharduerarako gainerako arauak.

35. artikulua: Osaketa

Harrobia BHIPko Eskola Kontseilua, gutxienez, honako kide hauek osatuko dute:

- Ikastetxeko zuzendariak, organoko lehendakari izango denak.
- Ikastolako titularren hiru ordezkari
- Irakasleen lau ordezkari
- Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat
- Ikastolako ikasleen gurasoen bi ordezkari
- Ikastolako ikasleen bi ordezkari

Horiez gain, zinegotzi batek edo ikastetxea dagoen udal mugarteko udalaren ordezkari batek ere parte har lezake.

Ordezkaritza-organo goreneko kideek beren ordezkaritza-lanean ez dute nahitaezko mandaturik izango.

36. artikulua: Eskola Kontseilua hautatzea eta berritzea

Bi urtetan behin, Eskola Kontseiluko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da.

37. artikulua: Presidente eta idazkaria aldatzea

1. Zuzendaria kanpoan bada, zuzendariordea izango da ikastetxeko buru. Ikastetxean zuzendariorderik ez badago, ikastetxeko zuzendari ikasketaburua izango da edo, hala badagokio, antzinatasunik handien duen ikastetxeko Eskola Kontseiluko irakaslea.

2. Idazkariorderik egon ezean, ikastetxeko Eskola Kontseiluko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

38. artikulua: Eskola Kontseiluaren funtzionamendu-erregimena


1. Eskola Kontseiluaren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die Eskola Kontseiluko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespena. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.

2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.

3. Eskola Kontseilua urtean behin bilduko da gutxienez. Eskola Kontseilua bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo Eskola Kontseiluko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. Eskola Kontseiluko kide guztiak derrigor joan beharko dute Eskola Kontseiluaren bileretara.

4. Eskola Kontseiluak gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:

a) Hezkuntza-proiektua, urteko plana eta Barne Antolamendua eta Arautegia onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.



b) Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.

2. atala **Elkarbizitza lantaldea**

39. artikulua: Deskribapena

Elkarbizitza lantaldea ikasleen partaidetza sustatzeko organoa da. Bertan ikastolako irakasleen presentzia egongo da eta ziklo guztietako ordezkariak daudela bermatuko da. Organoak komunitate osoarengan eragina duten gaiak jorratuko ditu.

Elkarbizitza lantaldeak norabide biko komunikazio organoa izaki, alderi guztien arteko informazioa elkartrukatzea ez ezik, iradokizunak, ideiak eta proposamenak plazaratzeko eta gauzatzeko organoa izango da. Hala, Elkarbizitza lantaldeak funtzionamendu aroloko erabakiak hartzeko eta gauzatzeko autonomia izango du, baldin eta bertan ordazkatuta dauden alderdi guztiak ados baldin badaude.

Elkarbizitza lantaldea koordinazio lantaldea behar di izan. Beraz, bere esku geldituko da aginte-organoetatik eta koordinazio didaktikorako organoetatik datorren informazioa ikasleei zabaltzeko ardura.

40. artikulua: Eskumenak

Elkarbizitza lantaldeak honako ekumen hauek izango ditu:

Ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuen gainean iradokizunak egitea.

Aginte-organoen eta koordinazio didaktikorako organoetatik datorren informazioa ikasleei helaraztea
Ikasleengandik datozen proposamenak balioestea eta onartzea, organoari dagokion gaietan.

Ikasleengandik datozen proposamenak helaraztea dagokion organoari.

Ikasleen kezkak eta iradokizunak baloratzea eta erantzuna ematea interesdunari edo interesdunei eta, beharrezkoa balitz, gaian eskumena duen organoari helaraztea.

Elkarbizitza lantaldeak erabakiak hartzeko gaitasuna izango du honako gai hauetan:

- Hizkuntz Normalizazioa: HNATren proposatutako urteko plana onatuko du eta urteko plan horretako diseinuan proposamenak egingo ditu. Planaren inplementazioan ere parte hartuko du.
- Genero berdintasuna: Ikasketa burutzak proposatutako urteko plana onartuko du eta beronen sentsibilizazio ekintzak proposatu eta inplementatuko ditu.
- Jasangarritasuna: Agenda 21eko dinamizatzaileak proposatutako urteko plana onartuko du eta planaren beraren inplementazioan lagunduko du.
- Ekintzailtza: ekintzailtza sustatzeko ekintzak proposatuko ditu urteko planean sartzeko eta ekintza horiek garatzen lagunduko du.
- Bizikidetzatza: eguneroko elkarbizitzan egon litezkeen liskarren aurrean dagokion organoak hartutako erabakiaren berri izango du.

Aipatu arloetan, Elkarbizitza lantaldeak ikasleek proposatutako edo koordinazioaren ondorioz helarazitako jarduerak-proposamenak aztertu eta martxan jarriko ditu.

a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria lantzeko proposamenak, baita eskola jardunaldia antolatzeak ere, zuzendaritza taldeari luzatzea.

- b) Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkariari aholkularitza eta laguntza eskaintzea, baita talde edo ikasturte bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea ere.
- c) Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkarien aldetik informazioa jasotzea, gai-zerrendari buruz, modu eraginkorrean aztertutako gaiari buruz eta Eskola kontseiluan hartutako akordioei buruz.
- d) Eskola Kontseilurako txostenak egitea, bai ikasleen Ordezkarien Batzordearen berezko ekimenez bai Eskola Kontseiluak hala eskatuta ere.
- e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan.
- f) Ikasleei Ordezkarien Batzordearen jarduerari buruzko informazioa ematea.
- g) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko proposamenak egitea.
- h) Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa ematea, hitzarmenik egonez gero, eta horien jarraipenean parte hartzea.
- i) Ikasleengan eragin zuzena duen beste edozein jarduera edo erabaki.

41. artikulua: Osaketa

Elkarbizitza lantaldea honela osatuko da:

- Ikastolan eskaintzen diren zikloetako geletako ordezkari bana
- Ikasketa burua.
- HNAT
- Agenda 21eko dinamizatzailea
- Genero-berdintasuneko arduraduna.
- Orientatzailea

42. artikulua: Elkarbizitza taldearen funtzionamendua

Geletako ordezkariak ikaskideen beraiek osatuko dute. Hautaketa ikasturteko leheengo hilabetean egingo da eta ikastalde bakoitzak erabakiko du prozedura.

Gainerako partaideak ikastolako organo eskudunak hautatuko ditu.

Elkarbizitza lantaldea bi hilabeteik behin bilduko da gutxienez, ikasketa buruak deituta. Egoerak hala eskatuko balu, partaidetako edozeinek eska lezake bilera berezi bat deitzea.

Ikasketa buruari dagokio bilera deialdia egitea eta partaide guztiei helaraztea, bai eta bertan jorratuko diren gaien zerrenda partaideei helaraztea.

Elkarbizitza lantaldeak organoari dagozkion gaietan hartu beharko dituen erabakiak aho batez hartuko ditu.

3. atala **IRAKASLEEN KLAUSTROA**

43. artikulua: 11. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera

1. Irakasleen klaustroa irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorena ere bada. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.
2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. Ikastolako Idazkaria klaustroko idazkari izango da ere.
3. Zuzendaririk egon ezean, ikasketaburua izango da klaustroko buru. Eta zuzendaririk nahiz ikasketabururik ez badago, antzinasunik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

44. artikulua: 12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.
2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.
3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenez egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.

45. artikulua: 13. artikulua. Klaustroaren eskumenak

- Ikastetxearen ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardunen egitaraua egin eta onartzea, ordezkartza-organo gorenak irizpena eman ondoren; organo horrek erabakiko du ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasotako arteztarauen egokitasunaz.
- Irakaskuntza-jardueren egitarauaren betetze-mailaren berri ematea ordezkartza-organo gorenari, urteko txostena egin dezan.
- Ikasleak ebaluatu eta berreskuratzeko lanari buruzko irizpideak ezarri eta koordinatzea.
- Ikasleagoaren bideratze-eginkizunak eta tutoretza planifikatzea eta zuzentzea.
- Ikastetxean garatu behar diren pedagogiazko saioetarako edo ikerketarako ekinbideak sustatzea.
- Ikastetxearen jarduera-arauak onartzea.
- Irakasleagoaren prestakuntzari dagozkionetan prestakuntza-jardueren, eta ekintza osagarritzkoen egitarauari buruzko txostena egitea, ordezkartza-organo gorenak onartu baino lehen.

46. artikulua: Klaustroaren dinamizazioa

Zuzendariak egingo du klaustroaren deialdia eta alde zuzenetik jorratuko diren gaien zerrenda igorriko die partaide guztiei.

Interesdunen bat egotekotan, berak helaraziko dio zuzendariari gai-ordenean gai zehatz bat txertatzeko proposamena.



HARROBIA BHIP-REN ANTOLAMENDUA ETA JARDUERA- ARAUTEGIA



Klaustroaren egunean bertan behera geratuko dira edkola-jarduera guztiak, partaide guztien presentzia bermatzeko.

4. KAPITULUA KOORDINAZIO DIDAKTIKORAKO ORGANOKAK

Zuzendaritza taldea, Tutoreen lantaldea eta Lanbide Arloko Ekipoa koordinazio didaktikorako organoak izango dira. Aipatu berri ditugun hiru organo horiek, klaustroaren, Ikasketa-burutzeta eta orientazio-departamentuen zuzendaritzapean egongo dira.

1. atala Zuzendaritza taldea

47. artikulua: Deskribapena eta osaketa

Pertsona bakarreko aginte-organok HARROBIA BHIPko zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiek modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.

2. Ikastetxearen zuzendaritza eta koordinaziorako irizpideak erabakitzeke eta iharduerari begira garrantzi handiagoko erabakiak hartzeko orduan zuzendariari laguntzea.

Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-jardueren, ekintza osagarrikoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua gauzatzea, ordezkari-organoren gorenak onar ditzan.

Aurreko puntuan adierazitako programen burutzapena zaintzea eta koordinatzea, eta horien betetze-mailaren berri ematea ordezkari-organoren gorenari urteko txostena onar dezan.

Urteko txostenaren zirriborroa egitea, ordezkari-organoren gorenak eztabaida dezan.

Ordezkari-organoren gorenari beste zenbait ikastetxerekin lankidetzaren harremanak izateko proposamena egitea eta, halaber, kultura eta hezkuntza-xedez, erakundeekin itunak izenpetzeko proposamenak egitea, organoren horrek, egoki baderitza, hezkuntza-administrazioari aurkez diezazkion.

Irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeke irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran.

3. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitza, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utzi ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku.

4. Zuzendaritza taldean, pertsona bakarreko organo hauek osatuko dute zuzendaritza taldea:

- Zuzendaria
- Ikasketa burua
- Idazkaria
- Zerbitzuen arduraduna

2. atala Tutoreen lantaldea

48. artikulua: Deskribapena eta osaketa

Tutoreen lantaldea koordinazio lantaldea da. Bertan ikastolan eskaintzen diren ziklo guztietan eragina duten gaiak jorratuko dira. Horiek izango dira, besteak beste:

Bizikidetzarekin erlazionatutako gaiak: barne arautegia berraztertzea, instalazioak erabiltzea, bizikidetzarekin zerikusia duten kontuetan unean uneko arazoak ebaztea.

Ikas-prozesuarekin erlazioa dutenak: egutegiaren eta ordutegiaren moldaketak, ikas-prozesuaren ohiko jardura etetea, ikas-prozesuaren baitan proposatzen diren ekimenak onartzea, dinamizatzea eta martxan ipintzea.

Ebaluazioarekin zerikusia duten gaiak: ebaluazio-bileren egutegia zehaztea, zereginak zehaztea.

Tutoreen lantaldea honako pertsona hauek osatuko dute:

- Ikasketa burua
- Ikasgeletako tutore guztiak

Tutoreen lantaldea astero bilduko da eta ikasketa buruak dinamizatuko du. Ikasketa buruak proposaturiko gai-ordena landuko da asteroko koordinazio bileran. Partaideek gaiak proposatu ahal izango dituzte alde zurretik.

3. atala Lanbide Arloko Ekipoa (LAE)

49. artikulua: Deskribapena eta osaketa

Lanbide Arloko Ekipoa ziklo bakoitzaren berezko gaietan izango du eskumena. Horiek izango dira, besteak beste:

- Ekintza osagarriak proposatzea eta gauzatzea
- Ikasleen ebaluazioa egitea
- Ikasleen banakako arreta eskaintzea
- LPKk kudeatzea
- Lanbide arloari dagozkion gaiei buruz erabakiak hartzea.

Lantaldea zikloan esku hartzen duten irakasle guztiek hartuko dute parte. Hala behar izanez gero, ikasketa buruak bileretan parte hartuko du.

4. atala Gurasoen Batzarra

50. artikulua: Deskribapena eta osaketa

1. HARROBIA BHIPko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra, betiere, ez bada beste prozedura bat aukeratzen, artikuluko honen 2. eta 3. e) ataletan azaltzen den ahalmenean oinarrituta.

2. Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organoren horrek Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzatzen direla gainbegiratuko du.

3. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

- a) Egokitzen jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.
- b) Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzaz handiena lortze aldera.
- c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.
- d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.
- e) Funtzionamendurako bere arauak onestea.

5. KAPITULUA PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

1. atala Aginte organoak

51. artikulua: 15. artikulua. Zuzendaria

1. Harrobia BHIPko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da. Bere eginkizunak kooperatibaren estatutuetan ez ezik, dokumentu honen Aginte-organoen barruan zehazten dira.

52. artikulua: 16. artikulua. Ikasketaburua

Ikasketaburuak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, Ikasketaburua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Halaber, baliabide didaktikoak zabaltzeko koordinazio-lanak egitea. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du. Horiez gain:

- Irakaskuntzako jarduerak koordinatzea.
- Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- Irakasleen hutsegite eta baxak direla-eta bete gabe geratzen diren lanpostuak betetzeko ezarri diren mekanismoak abiaraztea.
- Diziplina- eta elkarbizitza-arazoetan esku hartzea, araudi honetan ezarritakoaren arabera.
- Ebaluazio- eta orientabide-prozesuak koordinatzea.
- Irakasleen zeregina koordinatzea eta zuzentzea ikastetxearen programazioen eta tutoretza-planen arabera.
- Zuzendariak huts eginez gero (gaixotasuna, ikastaroak...), hura ordezkatzeko.
- Legeak eta Ikastolaren barne-antolamendua eta arautegiak aitor diezazkioketen gainerako egitekoak.
- Kalitate sistemaren adierazleak betetzen direla gainbegiratzea

53. artikulua: 17. artikulua. Idazkaria

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, Zuzendariaren agintepean, ikastetxean aritzen diren administrazio- eta zerbitzuetako langileen buru izango da. Horrez gain, aginte-organotako eta Koordinazio organotako eskumenetatik letozkioketen funtzioak ere bere ardurapean egongo dira, Ikastolaren Barne-antolamendua eta arautegiak xedatutakoaren arabera.

54. artikulua: 18. artikulua. Zerbitzuetako arduraduna

Zerbitzuetako arduradunak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, Zuzendariaren agintepean, ikastetxean martxan diren egitasmoak koordinatzeko eta garatzeko ardura izango du.

Horrez gain:

- Egitasmo bakoitzerako urteko plana eta memoriak egitea
- Idazkariarekin koordinatuta, izapidetze administratiboak egitea
- Koordinazio bileretara joatea
- Dagokion aginte-organoari bileretan gai bat jorrazteko proposamena egin
- Egitasmo zehatzetako bileretan dinamizatzaille lanak egitea

55. artikulua: Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzea

1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketaburuak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
2. Ikasketaburua kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin-behinean. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio Eskola Kontseiluari.
3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta ikastetxean idazkariorderik ez badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio Eskola Kontseiluari.
4. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordea edo ikasketaburua jarduneko zuzendari izango dira. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikulua honetako 2. eta 3. paragrafoetan jaso direnak ere.

2. atala Partaidetza-organoak

56. artikulua: Gelako ordezkaria

Gelako ordezkaria ziklo bateko eta gela bateko ikas-taldearen ordezkaria izango da. Zentroak ikasleei helarazi beharreko informazioa helarazteaz gain, ikasleen ekarpenak eta iradokizunak dagokion estamentuari helarazteko ardura izango du; horretarako, Elkarbizitza lantaldeko partaide izango da eta ebaluazio-bileretan parte hartzeko aukera izango du, ikastaldeak hala erabakiko balu.

Taldeko ordezkarien funtzioak

Hauek dira taldeko ordezkarien funtzioak:

- a) Ordezkarien Batzordearen bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea.
- b) Aginte-organoei eta Koordinazio Didaktikorako Organoei ordezkatzeko duten taldearen iradokizunak eta kexak helaraztea.
- c) Bizikidetzaren sustatzea ikasturteko ikasleen artean.
- d) Ordezkatzeko duten taldearen funtzionamenduaren gain eragina duten gaiak tutorearekin eta gainerako irakasleekin lantzea.
- e) Irakasleekin eta ikastetxearen aginte-organoekin batera ikastetxearen funtzionamendu egokiaren alde lan egitea.
- f) Ikastetxeko materiala eta instalazioak behar bezala erabiltzen diren zaintzea.
- g) Ikastetxeko aginte-organoek, beren eskumenen barruan, esleitzen dioten funtzio oro.

Bere funtzioak izango dira:

Ikastolak aurrera eramaten dituen egitasmoen berri ikas-taldeari zabaltzea

Ikastolaren bizitzan ikasleen partaidetza sustatzea

Ebaluazio-bileretan parte hartzea

3. atala Koordinazio didaktikorako organoak

57. artikulua: Tutorea

Tutorea ziklo bateko gela baten ardura izango du. Irakasle-taldearekin, ikasketa-buruarekin eta gainerako tutoreekin koordinatuko da. Koordinazio-foroetan parte hartuko du ikastolaren egitasmoak egokiro betetzen direla bermatzeko. Era berean, gurasoekiko harremana bere gain hartuko du. Horrez gain, honako funtzio hauek izango ditu:

- Guraso bilera dinamizatzea eta parte hartzea
- Gurasoekiko bilerak egitea eta ikasleen ikas-prozesuaren berri ematea, hala behar izanez gero.
- Ikasleekin, aldiro, tutoretza bilerak egitea, ikas-prozesuaren martxari buruzko gorabeherak jorratzeko.
- Ebaluazio-bilera dinamizatzea
- Aktak betetzea
- Buletinak betetzea
- Ikasleen orientazioa gidatzea

6. KAPITULUA .BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

1. atala I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

58. artikulua: Bizikidetzaren oinarriak

HARROBIA BHIPren ustez, bizikidetzaz bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik.¹

59. artikulua: Bizikidetzaz-plana

HARROBIA BHIPk bizikidetzaz-plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetzaz-planaren helburu nagusia bizikidetzaz gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jardura eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabil daitezke.

60. artikulua: Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte.² Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana joateko agindu.

61. artikulua: Betebeharrak betetzeko bermea

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte.³ Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketaburuarengana joatea aginduko dio.

¹ Irakasleen eskubideei eta betebeharrari ere erreferentzia egin dakieke. Irakasleen eskubideak eta betebeharrak irakasleei buruzko legeetan (LOEko III. Tituluan) eta funtzionarioen lege orokorretan (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 69-76 artikulua) jaso dira. Azken lege horiek administrazioko eta zerbitzuetako langileei eragiten die. Irakasleak, halaber, sindikatu-legeen mende daude.

² XII. eranskinean 201/2008 Dekretua ageri da oso-osorik.

³ Ikusi aurreko oharra

2. atala IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

62. artikulua: Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

HARROBIA BHIPko irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

63. artikulua: Seguratsunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

1. Tutorek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, ikasleren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketaburua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.

2. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzeman ez gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezzen.

64. artikulua: Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea

1. Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, HARROBIA BHIPko aginte-organoei, tutoreei eta irakasle guztiei babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak zenbait arau proposatuko dizkio OOGri grabatzeko bideen, sakelako telefonoen eta, oro har, teknologia berrien erabilerrari buruz. OOGk, bere aldetik, arau proposatu horiek onartu ala ez aztertuko du. Aipatu berri ditugun arauen bidez, ikasgelan grabazioak egitea, argazkiak ateratzea eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da.

2. Ikasgelatik kanpo –hau da, eraikinean edo eskola-barrutian– aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

65. artikulua: Biltzeko eskubidea

HARROBIA BHIPko aginte-organoei ziurtatuko dute biltzeko eskubidea –Legeak ikasleei aitortzen diena– modu eraginkorrean gauzatzen dela. Biltzeko eskubidearekin erlazionatutako alderdi guztiak zainduko dituzte. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntza-helburuarekin bat datorrela eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da. Horretarako, pertsona bakarreko aginte-organoei paragrafo hauetan zehazten dena hartuko dute kontuan:

a) Taldeak gelan bil daitezke ikasketei buruzko gaiak lantzeko, eskolarik galdu gabe, alde aurretik tutoreari jakinaraziz. Hala badagokio, tutorea bileran izango da. Horrez gain, hilean behin eskola-ordutan bil daitezke, ordubetez gehienez ere. Horretarako, tutoreari gai-zerrenda jakinarazi behar diote alde aurretik. Bilera horietan taldetik kanpoko ikaslerik ezin izango da egon. Tutorea ez badago, bilera horien buru eta moderatzaile taldeko ikasleen ordezkaria izango da.

b) Zuzendariak adieraziko du Ordezkarien Batzordeak zer lekutan egingo duen bilera. Horretarako, Araudi honetako 38.2 artikuluan aipatzen den eta funtzionamendurako arauak aurreikusten duten bileretarako araudiari jarraituko zaio.

c) Ordezkarien Batzordeak, egoki jotzen duenean, ikasle ordezkatuei kontsulta egitea erabaki dezake. Horretarako, Ordezkarien Batzordeak Ikasketaburuari baimena eskatuko dio, eta horrek, gai-zerrenda irakurri ondoren eta bertako gaiak Ordezkarien Batzordearen eskumenekin duten egokitzapen-mailaren arabera, baimena emango du ala ez du emango. Horrez gain, aurreko bileretan gai-zerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke zuzendariaren aurrean.

d) Bileren deialdia ikasle guztiei jakinaraziko zaie ikasleen ordezkarien bitartez, bileraren aurreko egunean. Gai-zerrendaren berri emango zaie ere. Bileretara joatea ez da derrigorrezko izango.

e) Ikasketaburuak, zuzendariaren agintepean, bilera non eta noiz egin erabakiko du. Hasiera batean eskola-ordutegitik kanpo egingo da. Horretarako, ikasketaburuak eskolen ordutegia alda dezake, eskolen iraupena murriztu gabe.

f) Hala ere, OOG osatzen duten hiru sektoreek –ikasleek, gurasoek eta irakasleek–, gehiengo erlatiboaren bidez onesten badute, ikasketaburuak eskolen iraupena murriztuko du bilerak ordubete iraun dezan. Horretarako bileran aztertuko diren gai kopurua eta gaien izaera kontuan hartuko dira. Eskola-ordutegia murrizten bada, eta erabakia bileraren bezperan hartzen bada, eta irakasle guztiei jakinarazten bazaie murriztapena eskola guztien artean banatuko da. Aitzitik, erabakia bilera egingo den egunean bertan hartzen bada, bilera egiten den jolas-orduaren aurreko eta ondorengo eskolak bakarrik murriztuko dira.

66. artikulua: Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak⁴

Biltzeko eskubidea betetze aldera, biltzeko eskubidea betetzearen ondorioz DBHko hirugarren mailatik gorako ikasle talde bat derrigorrezko eskoletara edo bestelako jardueretara huts egitea ez da jokabide okertzat hartuko. Gertakari horiek ezingo dira zuzendu, betiere, jarraian aipatuko duguna betetzen bada:

a) Eskoletara ez agertzeko proposamena ikastetxeko Ordezkarien Batzordeak hartuko du hasiera batean, bere ekimenez edota ikastetxean matrikulatuta dauden ikasle guztien edo legez aitortzen diren elkarteetako, federazioetako edo konfederazioetako ordezkarien %5ak hala eskatzen badu. Aldez aurretik jarraian azaltzen diren alderdiak eztabaidatu beharko dira:

- Deialdiaren hezkuntza- edo prestakuntza-helburua.
- Deialdiak ikastetxearekin duen lotura.
- Ikasle guztiek haren gain hausnartzeko duten denbora.
- Aurretik egindako beste deialdiak edo aurrerantzean egingo direnak.

⁴ Arau zabalak proposatu dira, aurreko Dekretuan ageri zirenekin bat etor daitezkeenak. Arau berriek aurreko Dekretuan ageri zirenak guztiz errespetatzen dituzte DBHko hirugarren mailatik aurrera, LOEk –ezartzen ez badu ere– jardunbide hori ahalbidetzen baitu. Arauak libreki murriztu daitezke: derrigorrezkoen ondoko etapetako ikasleei mugatuz; erabakiak hartzeko eta jakinarazpenak egiteko epeak luzatzeko eskatuz; mobilizazio orokorretara mugatuz; elkarte, sindikatu edo alderdi guztien babesa duten mobilizazioei mugatuz; edo Herri Administrazioak egin ditzakeen ohiz kanpoko mobilizazioetara mugatuz. LOEk faltatzen hartzen du talde oso bat eskolan ez egotea. Ez-agertze hori, nolana ere, hezkuntza-bitarteko gisa onar daiteke zenbait egoeratan. Ez du eskubide moduan aintzatesten.

b) Proposamena Ordezkarien Batzordeak onesten badu, deialdia idatziko da, artikulua honen 5.a) atalean adierazitako alderdiekin bat arrazoitua, eta deialdia egiten dutenak zeintzuk diren adieraziz. Horrez gain, orduak eta programaturako jarduerak adieraziko dira. Deialdia bilera egin baino bi lanegun lehenago egingo da gutxienez, deialdia egiten dutenek premia eragiten duten arrazoiak ikasketaburuaren aurrean aurkezten dituzten kasuan izan ezik.

c) Deialdia ikastetxearen zuzendaritzari helaraziko zaio eta, 52. artikulua 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera, xede horretara zuzendutako espazioetan eta lekuetan jarriko da. Bozketa amaitu bitartean, adierazitako lekuetan azaldu beharko du informazio guztiak.

d) Ordezkeri bakoitzak dagokion ikasle taldeari deialdia jakinaraziko dio, baita deialdia ikusgai egongo deneko lekua ere; deialdia ezin izango da geletan jarri eta ezin izango da ikaslerik behartu deialdiaren berri izatera. Modu berean, bozketa egingo deneko lekua eta unea jakinaraziko dira. Zuzendariak berriaz baimendu ezean, bozketa ezin izango da ikasgeletan egin.

e) Ikasketaburuak botazioa egingo deneko jolas-orduaren aurreko eta ondorengo eskolak murriztea erabaki dezake.

f) Botazioari jolas-ordua hasi bezain laster ekingo zaio; ikasturte bakoitzak mahai bat izango du eta ikasketaburuak zainduko du, edo haren kargua eskuordeturik hartu dueneko irakasleak. Mahai bakoitzean gutxienez talde bakoitzeko bi ordezkeri izango dira: batek, NANen bitartez edo ikastetxeko txartelaren bitartez ikasleen nortasuna egiaztatuko du eta dagokion ikasle taldearen zerrendan sartu; eta, bestek, ikasleen boto-txartela hartuko du.

g) Erabiliko diren boto-txartelatan, (BAI/SÍ) eta (EZ/NO) aukerak azalduko dira, bakoitza laukitxo batean. Hautesleek bi aukeretako baten alde egin beharko dute. Hartara, beraiek hautaturiko aukeraren laukitxoan ixa bat egin beharko dute tintaz edo bolalumaz. Bi laukitxoetan marka bana duten boto-txartelak baliogabeak izango dira, baita norberak bete ez duen botoa edo beste modu batera betetako botoa ere. Markadun laukitxorik ez duten botoak eta bestelako daturik ez dutenak boto zuzizat hartuko dira.

h) Bozketa amaitu ondoren, mahai bakoitzean botoak zenbatuko dira da. Emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne, ikastetxeko ikasle kopuruaren erdia gehi bateko *quorum*era iristen ez bada, botazioak ez du baliorik izango, eta ezin izango da deialdi berdinerako beste botaziorik egin. Beraz, deialdia besterik gabe baztertuko da.

i) Bozketaren emaitza baliozko izan dadin, quorum hau beharrezkoa da: botoen erdiak gehi bat. Quorum nahikoaz ikasketaburuaren proposamena onartu bada, azken horrek ikasleek hartutako erabakia deialdiarekin batera jarriko du ikusgai. Emaitza ez da inoiz loteslea izango eta ikasleek eskolara joateko duten eskubidea gauza dezakete. Nolanahi ere, deialdi onetsiari jarraiki eskoletara ez agertzea ez da jokabide okertzat hartuko eta ez da egintza hori zuzentzeko neurririk ezarriko.

j) Ikastetxeak eskolak emango ditu, agertzen ez den ikasle kopurua edozein izanda ere.

67. artikulua: Idatziko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

1. Apirilaren 19ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei aitortzen dien adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko:

a) Zuzendariak – edo, haren lekuan, ikasketaburuak– arautuko du eskubide hori gauzatzeko modua, espazioak eta lekuak. Edozein kasutan, erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da.

b) Edonola ere, informazioa jendarteratzeko dauden lekuetan eta espazioetan jartzen den informazio orotan, informazioaren erantzule den pertsonaren, erakundearen, elkartearen zein taldearen izena agertuko da.

c) Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.

2. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduz.

3. atala BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK

68. artikulua: Printzipio orokorra

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

2. Betebeharrak ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

69. artikulua: Zuzendu beharreko jokabideak

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, hainbestekoa non zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeen.

70. artikulua: Jokabide desegokiak⁵

1. Jokabide desegokitzat arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.
2. HARROBIA BHIPn, arestian aipaturiko Dekretuan jaso denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desegokiak.
3. Ikasketaburuak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauarekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

71. artikulua: Bizikidetzaren kontrako jokabideak⁶

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana

⁵ XII. eranskina

⁶ XII. eranskina

joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

72. artikulua: Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak⁷

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.

2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

73. artikulua: Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluan aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

⁷ XII. eranskina

7. KAPITULUA EBALUAZIOA

1. atala Errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboa

74. artikulua: . Printzipio orokorrak

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

75. artikulua: Publikotasuna

1. Ikasketaburuak bermatu beharko du ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko Curriculum Proiektua eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkoren eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarritzko gaitasunak.
2. Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du didaktika-departmentuek eta irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak, bestetik, ebaluazio-prozedura nahiz -irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.
3. Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heltzen zaiela.

76. artikulua: Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa

1. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatuko dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartean dutela, ikasle adingabearen kasuan. Bestelako kasuetan unean uneko erabakiak hartuko dira, beti ere ikasleen Datuak Babesteko Legeak xedatzen duena aintzat hartuta.
2. Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasle guztiek egin behar hori betetzen dutela.
3. Ikasketaburuak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin biltzen dela, gurasoek hala eskatuko baliute eta ikaslea adingabez balitz; eta, unean uneko egoerak aztertuta, betiere ikasleen Datuak Babesteko Legeak xedatzen duena aintzat hartuta.
4. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari aipatu bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete ikasle adingabeen kasuan, IIPn ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxieneko aldizkakotasunez. Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko. Unean uneko egoerak aztertuko dira ikasle adindunen kasuan, betiere ikasleen Datuak Babesteko Legeak xedatzen duena aintzat hartuta.

77. artikulua: Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.
2. Ikasketaburuak ezarriko du kopiak eskatzeko orriek bete behar duten prozedura. Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna.
3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

78. artikulua: Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea

Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik, ahoz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertzeko eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitza, didaktika-departamentuari aholkua eska diezairoke auzia ebazteko. Horretarako, kontuan izango curriculum ofizialaz eta IIPz gain, didaktika-departamentuen programazioak, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak lotesleak direla.

79. artikulua: Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea

1. Ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagozkion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikuluen azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.
2. Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, didaktika-departamentuaren esku-hartzea eska dezakete. Didaktika-departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz –erreklamazioa egin den modu berean– erantzungo dio.
3. Ebaluazio partziala gauza arrunta denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.

80. artikulua: Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.
2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzaileak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.

3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

81. artikulua: Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa

1. Azken kalifikazioak argitara eman aurretik, irakasleek kalifikazioa berrikusteko tutoretza-ordua jarriko dute. Tutoretza hori ikasketaburuak onetsi duen orduan egingo da. Kalifikazioa berrikusteko orduan, irakasleak ikasleei banan-banan jakinaraziko die zein den, bere iritziz, merezi duten nota. Ikasleen aldeko edo kontrako iritzia jasoko ditu eta, bere irizpide propioari jarraiki, kalifikazio aurreikusia aldatu edo bere horretan utziko du.

2. Aurreko puntuan zehaztutako tutoretza-ordura joan, kalifikazioarekin ados ez daudela adierazi eta, hala ere, aintzat hartuak izan ez diren ikasleek 48 orduko epea izango dute erreklamazioak egiteko, kalifikazioak formalki eman diren unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko dute idazkaritzan. Idatzi horretan, ikasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa; eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.

Ikasleak, halaber, erantsi ahal izango ditu ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak, betiere, ariketa zehatz edo ebaluazio partzial horiek azken ebaluazioko emaitzaren gain eragina izan badute.

3. Ikasketaburuak dagokion didaktika-departamentuari aurkeztuko dio erreklamazioa. Didaktika-departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proba proposatuak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ere. Didaktika-departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz igorri diren txostenak.

Kontuan izango du erreklamazioaren antzerako egoeran dauden ikasleei irakasleak zer kalifikazio jarri dien.

4. Ikasleak azken ebaluazioan «gutxi» edo «gutxiegi» kalifikazioa jaso badu, haren kontrako erreklamazioa aurkeztu badu, eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritzia besterik ez badira hartu nota jartzeko, kalifikazio negatibo hori ezin izango da bere horretan utzi, salbu eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritziei buruz nahikoa informazio bildu bada.


5. Didaktika-departamentuak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.

82. artikulua: Didaktika-departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak

1. Didaktika-departamentuak bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari. Azken horrek interesdunari helaraziko dio didaktika-departamentuaren erabakia.

2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

3. Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-



administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.